

BERMEON KALE SALMENTA BAIMENAK ESLEITZEA
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2016eko azaroaren 29an, goizeko 8:05ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aritz Abaroa Cantuariense J^a, Zinegotiza
Amaia Elorza Elortegi A^a, Zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udaleko Idazkaria
Eduarne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeon kale salmenta baimenak esleitzea

Batzarrari hasiera ematen zaio aztertuko den gaiak aipatuz:

- Aurkeztutako dokumentazioaren azterketa
- "Asociación de vendedores ambulantes de Vizcaya" k egindako eskaera

Lehena: Orain arte egindako errekerimenduen bidez aurkeztutako dokumentazioa aztertu da eta, .

Bigarrena: 14.904.718-M NAN zenbakidun eskatzaileak, 23. salmenta baimenerako egindako errekerimenduan eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu du.

Hirugarrena: 14.578.700-N NAN zenbakidun eskatzaileak ez du, epe barruan, aurkeztutako dokumentazioa argitzeko errekerimenduari erantzunik eman, beraz, eskatutakoa bete ez duenez salmenta baimenaren esleipen proposamenari (5. salmenta baimena) uko egiten diola ulertzen da.

Laugarrena: Atalde kaleko azokatxoari 2017ko otsailaren 21ean amaiera ematea proposatzen da eta Alde Zaharrean egingo den azokatxoari hasiera 2017ko martxoaren 7 ematea.

Bosgarrena: "Asociación de vendedores ambulantes de Vizcaya" k hurrenkera zerrendan geratu diren saltzaileei Alde Zaharrean egingo den azokatxoan kokatzea eskatu du. Osoko Bilkurak onartutako esleipen prozesuan postuen kopuru zehatza aipatzen dira. Honela, postuen kopurua aldatuz gero (Osoko Bilkurako erabaki baten bidez) prozesu berri bat hasi beharko litzateke oraingoa bertan behera utziz.



Goian aitatutako kontuan hartuta, honako **ERABAKIA** hartzen da:

LEHENA: 14.904.718-M NAN zenbakidun eskatzaileari 23. salmenta postua esleitzea.

BIGARRENA: Salmenta baimenaren aukerari uko egin duen kasuan, hurrenkera jarraituz, hurrengo eskatzaileari dokumentazioa aurkezteko errekerimendua bidaltzea.

HIRUGARRENA: Atalde kalean egiten den azokatxoa 2017ko otsailaren 21ean amaitutzat ematea eta bertako saltzaileei honi buruzko notifikazioa bidaltzea.

LAUGARRENA: Alde Zaharrean azokatxoa 2017ko martxoaren 7tik egitea.

BOSGARRENA: Osoko bilkurarik salmenta postuen baimena esleitzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzordeari delegatzeko eskaera bideratu.

SEIGARRENA: "Asociación de Vendedores Ambulantes de Vizcaya" egindako eskaerari ezezko erantzuna ematea.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.



BERMEOKO UDALA
IDAZKARIAK

